

**Victoriano Huizi-ren *Gramática*
Bascongada eta Aingeru
Yrigarai-ren mendeurrenak**

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24/25

Antolakizun batzordea:

Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Gema Insausti, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.

Gramatikako batzordea:

— *Burua*: Patxi Altuna; *Idazkaria*: Jesus M. Makazaga; *Kideak*: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Kar-mele Rotaetxe eta Pello Salaburu.

Onomastikako batzordea:

— *Burua*: Henrike Knörr; *Idazkaria*: Mikel Gorrotxategi; *Kideak*: Andrés Iñigo, Jose Luis Lizundia, Jean-Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin eta Jose Mari Satrustegi.

Exonomastikako batzordea:

Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia eta Xabier Kintana.

VICTORIANO HUIZI ETA AINGERU IRIGARAIEN MENDEURRENAK

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

*Fernando Flores Lazkoz,
herriko alkate/udalburua*

Hasiko gara gaurko ekitaldi honekin: lehenengoa, denoi ongi etorria ematea izango litzateke. Ongi etorria, bai Euskaltzaindiari, gonbidatu guztiei eta etorri zaretan herritar guztioi. Gaurko egunean ospatzen ditugu Victoriano Huizi eta Aingeru Irigarainen mendeurrenak. Bi egun hauetan izango dugu aukera ezagutzeko bi pertsona hauek, euskararen alde egin zuten lanaren gaiak eta bereziki etxarriarra izan zen Victoriano Huiziren lana *Gramática Bascongada* delakoa. Horrek frogatzen du urteetan zehar izan direla pertsonak euskararen alde lan egin dutenak eta ere euskararen defentsan jardun dutenak. Bestaldetik, horrek frogatzen du euskarak beharrezkoa duela pertsona guztion lana aurrera atera ahal izateko. Hau dena, bi egun hauetako ospakizun hauek egiteko, Ziriketzen taldeak eskaini zion Udalari Euskaltzaindia gonbidatzeko eta Udalak osoko bilkura batean, denon oniritziarekin, gonbidapen hori luzatu genion Euskaltzaindiari. Euskaltzaindia, hemen ikusten dugun bezala, etorri da hona, Etxarrira eta ari da jardunaldi hauek burutzen. Horregatik nahi nuke nabarmendu Euskaltzaindia egiten ari den lana, euskararen normalkuntzaren alde. Denok beharrezko dugulako, euskara gero eta tresna inportanteago eta aberatsago izatea gure arteko harremanetan. Atera behar duela nolabaiteko bazterketa horretatik eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari egiten duen lanagatik. Esan behar dut etxarriar guztion arteko elementu inportantea izan behar duela euskara eta Euskal Herri osoko euskaldunon arteko harremanetan, euskarak ere lagundu gaitu etorkizuneko Euskal Herria euskaldun osoa izaten eta bestaldetik ere, Euskal Herria aske bat egiten. Horregatik, denon artean landu behar dugu euskara eta euskararen inguruko kultura.

Besterik gabe, nik bukatuko nuke eta berriz eskerrak eman nahi dizkizuet eta baita ere aipatu ahalegin hau gauzatu dutenak.

Orduan, orain, pasatuko nioke hitza Jean Haritschelhar euskaltzainburuari. Berak izango du hitza.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

VICTORIANO HUIZIREN
GRAMÁTICA BASCONGADA
eta
AINGERU IRIGARAIEN MENDEURRENAK

Etxarri-Aranatzan, 1999ko ekainaren 24an eta 25ean.

Udaletxean eta Kultur Etxean



ETXARRI-ARANAZKO UDALA

VICTORIANO HUIZI ETA AINGERU IRIGARAIREN MENDEURRENAK

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Etxarri Aranatzeko alkate jauna,
Sakanako alkate eta agintariak,
Euskaltzainkideak,
andereak eta jaunak, agur.

Eskerrak ukan ditugu zuregandik, alkate jauna; nik ere, orain, Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak bihurtzen dizkizut.

Eskerrak harrera paregabekoa hartu dugulakotz herri honetan. Egun eta bihar, bi egun iragaiten ditugu Nafarroako eremu pollitean. Goiz honetan zuzendaritza bildu da Kultur etxean, arratsaldean hileroko bilkura egin dugu udal-etxean hiztegi batua aztertuz eta, halaber, Zuberoako herritarren izenak. Bihar, goizez eta aratsaldez, Gramatika batzordea, Onomastika batzordea eta Jagon Saileko Sustapen batzordea ariko dira lanean, Euskaltzaindiak lan egiten baitu bereziki batzordeei esker.

Hain zuzen, berriz ere gaur, zuen aitzinean errepikatuko ditut Euskaltzaindiak Euskal Herri osoari egiten dion emaitza. Hor daude lekuko Orotariko Euskal Hiztegiaren 11 liburukiak, hamabigarrena agertuko delarik datorren abenduan Durangoko azokarako; Gramatika batzordeak argitaratu dituen bortz liburukiak, seigarren bat aurten, murgildua delarik euskal joskeran; Hizkuntz atlasaren lehen liburukia hiruehun bat mapekin prest dago argitaratzeko; Onomastika batzordeak ez du denborarik galtzen jakinik *Onomasticon Vasconiae* sortan hamasei liburu kaleratuak direla; Literatura batzordea lantzen ari da estilistika hiztegi bat, beharrezkoa erakaskuntzan, eta denbora berean biltzen ditu jardunaldi edo kongresoetan euskaldun ikerleak euskal literaturak dauzkan idazle ospetsuak ohoratuz, hala nola Oihenart edo Lizardi eta, duela bi urte Antoine d'Abbadie, euskal letretako mezenas handia XIX. mendean.

Gaur, areto nagusi honetan bilduak gara euskararen bi zerbitzariren oharatzeko. Aipa dezadan lehenik Aingeru Irigarai nafartar euskaltzaina. Duela berrogei urte hain zuzen, Aingeru Irigarairen ezagutza egin nuen. Orduan ene

tesiareen lantzen ari nintzen eta, egunero, banindoan Gipuzkoako diputazioko bibliotekara. Harat hurbiltzen ziren Koldo Mitxelena, Fausto Arocena, Artetxe eta Aingeru Irigarai. Zer plazera haiekin mintzatzea! Zer ez dut ikasi batzuekin eta bertzeekin! Gogoan ditut oraindik haiekin iragan ditudan denbora goxoak. Aingeru Irigarai izan da gure kidea Euskaltzaindian, haren lanak ezagutuak dira eta badakigu denek euskal kulturari egin dion emaitza. Larreko, nafatar idazle famatuaren semea zen eta aitak ideki zuen ildotik joan da bere bizi guzian. Agurtu nahi ditut mahain honetan dagoen Aingeru Irigarai-ren semea José Angel eta aretoan diren seme eta ahaideak.

Duela ehun urte sortu zelarik Aingeru Irigarai, zendu zen Victoriano Huizi, herri honetako semea "Gramatika Bascongada" baten egilea. Ene ondoan dagoen euskaltzain batek aipatuko du Victoriano Huizi-ren lana, aztertuz sakonki gramatikariaren emaitza.

Ohar bat egin nahi nuke. Gazteleraz idatzia da Gramatika Bascongada de-ritzan liburua. Garai hartan 1895ean, Iparraldean, Iturrik agertarazi zuen gramatika bat, frantsesez idatzia dudarik gabe. Halakoa zen orduko giroa ikerketa lanak idazten zirela gazteleraz edo frantsesez. Giro hori osoki aldatua da. Azken mende laurden honetan agertu diren gramatikak euskara hutsean idatziak dira, Euskaltzaindiarena ere, erran gabe doa. Zerbait erran nahi du aldatze horrek. Erakusten du gure euskara gai dela edozein gairen erabiltzeko, lekuko direlarik Euskal Herrian ditugun unibertsitateak eta lehen eta bigarren mailako ikastetxeak. Euskara sartua da eskoletan, ikastoletan, unibertsitateetan, euskaraz emaiten dira klaseak, euskaraz egiten dira ikerketak, euskalduntzen ari da hezkuntza. Giro pozgarria dudarik gabe, erakusten duena euskara sartzan ari dela eremu guzietan, zilegi den bezala.

Horretan uzten dut ene mintzalditxo hau, berriz ere bihotz bihotzetikako eskerrak bihurtzen dizkiedala Etxarri-Aranatzeko eta Sakanako alkate eta agintari guztiei.

1923an ETXARRI-ARANATZEN EGIN ZIREN EUSKAL JAIEN OROIMENEAN

Andres Iñigo,
euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria

1. SARRERA

Iaz ospatu genuen Donezteben bertan 1923an egindako Euskalegunen 75. urteurrena.

Ospakizun haren berri ematerakoan esan nuena gogoraraztea ongi etorriko zaigu Etxarrin urte hartan berean, baina lau hilabete lehenago, egin ziren Euskal Jaien garrantzia ulertzeko.

Euskaltzaindia lau urte lehenago sortu zen, 1919an alegia, eta hasiera hartan hartutako erabakietako bat bi urtetik behin eta eskualde desberdinetan Euskalegunak ospatzekoa izan zen, honako helburu honekin: galtzen ari zen euskarari eustea eta, aldi berean, gure hizkuntza indarberritu eta hedatzea. Lehendabiziko Euskalegunak Durangon egin ziren 1921ean. Haien ondoren, Euskaltzaindiak Nafarroako Diputazioari eskaera hau egin zion: Nafarroan euskal jairen bat edo gehiago egiteko dirua eman zezala arren, “*galtzen ari zaigun euskarari eusteko*” (1). Bigarren Euskalegunak Donezteben egin ziren, bada, 1923ko irailean. Baina Euskalegun horien erabakiaren oinarri Etxarri-Aranatzen lau hilabete lehenago, urte hartako maiatzean hain zuzen, egindako Euskal Jaiak izan ziren. Azkue euskaltzainburuak honela zioen: “*Etxari-Aranatz'en egin zen jai ura ain ederki atera zela ikustean, Aldundiak egun berean jakitera eman zigun Doneztebe'n egitea naiko zukela*” eta hartarako laguntza ere eskaini zuen (2).

2. ZER IZAN ZIREN ETXARRIKO EUSKAL JAIAK?

Euskal Jaiak Euskaltzaindiak antolatzen zituen jardunaldiak ziren, bestiek beste, hiru helburu hauek lortzeko: 1) euskarari eutsi, 2) behar bezala balioetsi, 3) bere erabilera gizartean sustatu. Jardunaldi horiek antolatzeko beharrezkoa

(1) *Bigarren Euskalegunetarako Itzaldiak Doneztebe-n*, Gaubeka inprimategia, Bermeo, 1926.

(2) *Ibid.*

zuen herri agintarien babesa, eta Etxarrikoek izan zuten bai Nafarroako Diputazioarena baita Etxarriko Udalarena ere.

Etxarrin egiteko arrazoia garaiko prentsak nahiko argi adierazten digu, hots, inguruko ibar eta herrietan euskararen erabilerearen galera oso nabaria zela eta galera horren mugak bertaritzen ari zirela (3).

Etxarri puntu estrategikotzat jo zuten egoera hari aurre egiteko (4). Ekitaldien balorazioa egiterakoan ere helburu nagusia hori zela argi adierazten du prentsak (5).

Jaiaren ekitaldi publikoak maiatzaren 21ean izan ziren, goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 7ak arte. Beraz, ekintza ugari sartu zuten egitarauan eta, laburbilduz, honako hauek izan ziren garrantzitsuenak:

— Abestiak: Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Unanu eta Lizarragako haur, gazte eta helduek euren herrietako kantak abestu zituzten.

— Bertsolariak eta irrintzilariak.

— Zenbait haurrek buruz esandako olerkiak (Margarita Mauleón aipatzen da horien artean).

— Hitzaldiak: Marzelo Garziarena, Irañetako erretorea, Arturo Campi3n eta Damaso Intza euskaltzainak izan ziren hizlariak.

— Azterketak: inguruko herrietako neska-mutikoez euskaraz nola irakurtzen eta idazten zuten neurtzeko. Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Ergoiena eta Bakaikukoek hartu zuten parte. Hoberenei sariak banatu zitzaizkien: liburuak eta Nafarroako Aurrezki Kutxako kartilla bana. Arbizuarrak izan omen ziren herrien artean mailarik altuena agertu zutenak.

(3) Jaiak ospatu ondoren, *El Pensamiento Navarro* egunkariaren lehenengo orrialdean POR EL EUSKERA titulupeko editorialak honela zioen: "Acaban de tener lugar en esta villa las fiestas y actos de propaganda del Euskera organizados por la benem3rita Academia de la Lengua Vasca. Eran ya, indudablemente, necesarios para que no se amortiguase —como se iba amortiguando— el uso de nuestra lengua nativa, tanto en este pueblo como en los de los alrededores. La f3brica de Olazagutia, la estaci3n de Alsasua, el Valle de Araquil donde —verg3enza es confesarlo— en pocos a3os ha desaparecido casi por completo el Euskera, y por otro lado, las Am3scoas, Gofii y Yerri, venfan cercando a la propiamente Burunda, hasta tal punto que parecia que no pod3a tardar mucho en ahogar el vascuence que por fortuna en sus pueblos se habla todav3a". *El Pensamiento Navarro*, 1923ko maiatzaren 23koa.

(4) "... vinieron muchas personas atraidas por el inter3s que hab3a despertado este homenaje que se hac3a al vascuence en esta villa, donde es fama entre los entendidos que se habla con gran correcci3n y pureza. *Diario de Navarra*, 1923ko maiatzaren 23koa.

(5) El d3a de hoy ha sido para Echarri-Aranaz y para toda la Burunda un d3a 3ntimo y de puro regocijo [...] y servir3 indudablemente para que la Burunda que hasta ahora ha sido el primer baluarte montaf3es en donde se ha detenido la invasi3n antieusk3rica se convierta en foco potente desde donde irradiar3 el amor a la lengua nativa [...] y en definitiva el amor a todo lo que sea navarro, a lo que sea tradicional, en una palabra, a sus fueros venerados". Urbasa (sinatua). *El Pensamiento Navarro*, 1923ko maiatzaren 23koa.

Hasieran aipatu dut Jai haiek babes ofiziala izan zutela. Nafarroako Diputazioak diru laguntza emateaz gain, bere presentziarekin babestu eta bultzatu nahi izan zituen, bertaraino etorritz, hemen egon baitziren egun osoa Lorenzo Oroz eta Ignacio Baleztena diputatuak. Damaso Intza euskaltzain eta jai haien prestatzailerik sutsuenak —bera izan zen eskoletako haurrak euskaraz irakurtzera eta idaztera bultzatzen ibili zena, bai Etxarriko Euskal Jaietarako eta baita Doneztebeko Euskalegunetarako ere— ongi adierazten du garai hartako Diputazioaren babesa idatzirik utzi zizkigun honako hitz hauetan: “*Aldundian giñeuzkan zorionez Irujo'tar Manuel eta Baleztena'tar Ignacio jaun ospetsu eta euskaltzaleak. Oiengandik iritsi nuan gure errietako eskoletan euskeraz irakurri eta idatzi egiten erakusteko baimena. Baita, ikasten zuten aurrei «Aurrezki Kutxa»ko libretaz diru-sariak emateko eskubidea ere*” (6).

Prentsak ere aintzat hartu zuen diputatuen presentzia hori (7), eta Euskaltzaindiak berak jaien ondoren egindako adierazpen ofizialean goraipamena eskaini zien, alde batetik Nafarroako agintariei (8) eta bestetik Etxarriko udalari (9). Madriliko Euzko-Etxeak ere Etxarriko alkateari igorritako eskutitz batean zera zioen “... *nai datzugu erakutsi gure atsegiña Euskal-jai artan artu duzun parteagandik, zeren jai orretan goraltzen zen danagun gauzarik obereña Euskera. Artu zazu Euskalerra alde guzietako akai-erriarren batzuen agur miñenak. Madri'n 6'an, 1923n garagarilla. Lendakaria Arospide tar Jon*” (10).

Victoriano Huizik bere gramatika Nafarroako Diputazioari eta Iruñeko Seminarioari eskaini zien. Diputazioa zoriondu egiten du, gramatika argitaratu baino bi urte lehenago, 1897an alegia, Iruñean euskal katedra sortu zuelako. Apezpikua, ordea —bere izena aipatzen ez badu ere— gogor salatzen du, Nafarroan euskaraz bertzerik egiten ez zuten herrietara euskararik ez zekiten apezak igortzen zituelako. Horregatik, gramatikaren helburua “*apez erdaldunak euskararen ikasbidean abiaraztea*” zela adierazten du.

Urte batzuk geroago, 24 pasatu baziren ere, Huizi apezak ikusi ahal izan zituen bere helburuaren fruituak. Etxarriko Euskal Jaiak egiten zireneko ikasturte be-

(6) Patxi ZABALETA: “Euskaltzaindian sartzea”, *Euskera* XXXIII (2. aldia), 1988, 1, 19. orr.

(7) “...hemos tenido el placer de saludar a los dignos Diputados forales don Lorenzo Oróz y don Ignacio Baleztena”. *El Pensamiento Navarro*, 1923ko maiatzaren 23koa.

(8) “Satisfechos pueden estar los navarros con sus autoridades que con tanto entusiasmo velan por la conservación de las notas peculiares de su pueblo”. *El Pensamiento Navarro*, 1923ko ekainaren 7koa.

(9) La Academia “acordó un expresivo voto de gracias para este Ayuntamiento por el apoyo que prestó para la celebración de las fiestas vascas [...] y por los agasajos y distinciones con que acogió a los representantes de la Academia y demás autoridades, terminando por ofrecer su concurso en todo lo relacionado con la cultura vasca. Enterada la Corporación, acordó por unanimidad participar que este Ayuntamiento agradece la distinción de que ha sido objeto”. Etxarri-Aranazko udaleko akta, 1923-6-30ekoa.

(10) Udal artxibategiko korrespondentzia, 1923ko ekainekoa.

rean, Euskaltzaindiak hala eskatuta, Nafarroako Diputazioak euskal katedra hornitu zuen Seminarioan. Filosofiako 1. eta 2. mailako ikasketak egiten ari ziren apezgai guztiek euskara derrigorrezko asignatura izan zuten. Ikasturtearen bukaeran lortutako maila egiaztatzeko, Euskaltzaindiak, Etxarriko Jaiak ospatu eta hurrengo astean, Arturo Campi3n eta Damaso Intza izendatu zituen aztertzaille (11). Eta garaiko prentsak dioenez, apezgai haiek lortu zuten maila oso altua izan zen (12).

Dirudienez, gaur egungo apezgaiak ez daude horrelako emaitzak lortzeko bidean. Esan didatenez, Seminarioko ikasketa plangintzan euskararen presentzia gutxienekora murriztua dago.

Euskaltzaindiak antolatu duen Victoriano Huiziren euskal gramatika eta Aingeru Irigarairen mendeurrenaren ospakizun honetan, 1923an Euskaltzaindiak antolatuta hemen egin ziren Euskal Jaien oroimenari bukaera emateko hiru gauza aipatu nahi nituzke:

— Lehenik, Etxarriko Udalari eskerrak eman. Garai hartakoak bezalaxe, euskararen aldeko ospakizunak egiteko adierazi duen interesagatik eta eskaini digun babesa eta laguntzagatik.

— Ondoren, oraingo ikastola eta eskoletan ikasketa prozesua euskaraz egin duten eta egiten ari diren neska-mutikoez eta herritar guztiek eutsi diezaiotela, eta ahal den neurrian aberastu, etxarriarren euskara mailari, hasieran aipatu dudan bezala, garai hartan “*con gran correcci3n y pureza*” hitz egiten zutela esaten baitigute.

— Eta azkenik, Nafarroako gizartea azken urte hauetan egiten ari den euskararen aldeko ahaleginaren alde, garai hartako Diputazioak erakutsi zuen euskararekiko hurbiltasuna, laguntza eta bultzada bera ager dezatela, egungo Gobernuak, Elizbarrutiko arduradunek eta herri agentari guztiek.

(11) Euskaltzaindiaren 1923ko maiatzaren 28ko akta, *Euskera* VI urtea, II-III zenbakiak, 1925, 68 orr.

(12) “El resultado de los exámenes ha sido en extremo satisfactorio, habiéndose podido apreciar la labor grandiosa llevada a cabo por el celoso profesor vasco don Esteban Irañeta. También puede verse la aplicaci3n y entusiasmo de todos los alumnos por el estudio de la hermosa lengua, pues hasta los que son hijos de los pueblos en donde por desgracia no es conocida, han conseguido traducir en solo cinco meses de estudio el vascuence con gran facilidad. ¿No es esto verdaderamente encantador?...” *El Pensamiento Navarro*, 1923ko ekainaren 7koa.

BIKTORIANO HUIZIRI BURUZKO BERRI LABURRA (1860-1938) (1)

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

Joxemiel Bidador

Justo Huizi eta Anastasia González de Villazón senar-emazteren seme bakarra zen Biktoriano 1860.eko irailaren 6an jaio eta 1938.eko irailaren 19an izenkidea zuen Biktoriano Irurtzun iloba apezak lagundurik zendu zen Etxarri-Aranatzen (2). Apaiz izateko ikasketak Iruñeko San Migelgo apezgaitegian burutu zituen, hau da, hiru urteko humanitateak, bi urteko filosofia, eta sei urteko teologia, honen ostean, 1885. urte inguruan apeztu zelarik. Behin apeztez geroz, hamalau urtez izan genuen erretore eta beste zazpi urtez ari izan zen apaiz-laguntzaile Nafarroako hainbat tokitan. Apez moduan burutu zuen lehenbiziko lanak Aezkoara eta Itzara eraman zuten, Abaurrepera eta Larunbera hain zuten ere; halaz guztiz, ez zen luzaroei joko sorterritik hurbilera joanarazi zuten arte,

(1) Ezin esan Biktoriano Huizik ez duela ikerlarien arreta bereganatu. Gutxi dirateke etxarri honi buruz izkiriatu dutenak, baina eskal letretan labandu diren egile txikiez usuenan ditugun berri-iturri eskasei erreparatuz, gure Biktorianoren gainekoak nahikoa eskuragarri ditugula onartu behar. Arazoa, ordea, ditugun datu horiek batu eta Huiziren biografia zehatza osatzera abiatzerakoan hasiko zaigu, izan ere, dauden berri-iturri guztietan jasotzen direnak batera ez baitatoz, eta bete gabe dirauten hutsune nabarmenak baitituzte. Biktoriano Huiziz bereziki kezkatu zen lehenbizikoetakoa José María SAN SEBASTIAN, *LATXAGA*, izan genuen. Honek "Bitoriano Huizi Etxarriko seme ospetsua" artikulua eman zuen argitara behialako Príncipe de Viana aldizkariaren euskarazko gehigarrian, 1974.eko maiatzean, non argazki eta guzti eskeini zigun; Huiziri buruzko berri bila zuzen-zuzenean etxarriarren sortetxera jo zuen. Geoaogokoak dira, oro har, Huiziri buruz ditugun bestelako iturri bibliografikoak: Antonio PEREZ GOIENA: *Ensayo de Bibliografía Navarra*, IX, 1964, 265-266 or.; Fernando PEREZ OLLO: "Huizi González de Villazón, Victoriano", *Gran Enciclopedia Navarra*, Iruñea, Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1990; Rafael CARASATORRE BIDAURRE, Eugenio ULAIAR eta José Luis HERDOZIA: *Etxarri Aranatzko euskera eta Arañaz Elkarteko hiztegia*, Iruñea, 1991, 105-110 or.; Rafael CARASATORRE BIDAURRE: *Barranca Burunda*, Etxarri-Aranatz, 1993; Joxemiel BIDADOR: "Bitoriano Huizi etxarriar gramatikagilea", *Nafarkaria*, 1996-IX-20; Blanca URMENETA PURROY: *Navarra ante el vascuence: actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1996, 256 or.; ZIRIKETZEN Euskara Taldea: "Victoriano Huici (1860-1938): Etxarriko apaiz euskalzalea", *Guaixe*, 1996.eko abendua, 25. zenbakia, 25 or.

(2) Ez zen Krisostomoren jaio, esan ohi den bezala, bada, orduan ez baitzen horrela deitzen Huizitarren etxea. Biktorianoren hirugarren arrebarekin, hau da, Inozentziarekin ezkondukatu Krisostomo Irurtzun Irafeta lakuntzarrak eman zion izen berria etxeari —beste bi arrebak Narzisa eta Maria Kruz ziren—. Biktorianoren jaiotze dataren inguruan Carasatorre-Ulaiar-Herdozia hirukoteak, 1868.eko apirilaren 27koa, eman ziguten.

eta 90.eko hamarkadarako Unanun eta Arakil-Uharten izan genuen erretore; Ergoienako herrian, bestalde, eta zituen beste zereginen artean ere, latin eta humanitate irakasle ihardun zuen, zeramatzan ikasleen artean, Lakuntzako Blas Alegria euskal idazlea zegoelarik (3).

Nafarroan euskararentzako zegoen egoera itogarriaren lekukoa izan zen Huizi, eta urte bertsuetan hainbat euskaltzaleen ekimenei esker ekintza itxaropentsuak aurrera atera baziren ere, haiek ez zizkioten Huiziri begiak lausotu. Hemezortzi urteko apezgai gaztea genuen Biktoriano Nafarroako Euskara Elkartek bere ibilbideari ekin zionean bizitza laburreko aldizkari kultura bezain berritzailearen lehenbiziko alea argitaratuz, eta oraino, Bonapartek Sakanan barrera eginiko ibilbidearen orotzapenak itzaltzeke ziraukeen, alabaina, zailegia dateke Nafarroako puntako euskaltzaleek, hots, Campiónen eta Iturralderen lagunartekoek Huizirengan une hauetan izan zuten eragina zehaztea, orobat, printzearena. Campiónen *Orreaga* 1880.ean atera zen argira, eta lau euskalki literarioen gramatika, berriz, 1884.ean, Tolosako Lopez-Mendizabalenean. Puri-purian biziko zituen, ordea, 1897.ean Nafarroako euskarako katedrarako oposaketaren ingurukoak, gramatikaren erdarazko sarreran jaso zuen bezala:

“Por cuyas razones comprendo bien lo acertada que estuvo la Exma. Diputación cuando hace dos años resolvió crear una cátedra en baskuenz en Pamplona, no con el solo objeto de tenerle conmiseración, como se tiene a otros monumentos antiguos, sino con el noble y doble fin de que sea estudiado y se extienda por toda esta provincia de Navarra, como lo hacen sus hermanas en las suyas; en la seguridad de que es el mejor tipo que puede presentar para la felicidad de sus administrados.”

Ez zen aurkeztu, agidanez, baina ezin jakin zergatia, bada, aurkeztu izana ez zatekeen gauza harrigarriegia gertatu handik bi urtetara bere gramatika argitaratzeko gauza izan bazen; edozein modutan ere, oposaketan gailendu Iñarra oiartzuarra handik gutxira hil zen, ezagun denez, aldundikoek ezer gutxi egin zutelarik kostata ateratako postua arrabetetzeko.

Gotzainarekin Huizik ukan zituen arazoak euskara zela bide, eta Carasatorre-Ulaiar-Herdozia lan-taldeak zioskunaren arabera, ez ziren, ordea, aparteko kontua, nahiz onartu behar den, Biktoriano koxkorreko pertsona bazela, genio txarrekoa ez esatearren; 1901.ean estatuko *Boletín Oficial*-ean Nafarroako eskoletatik euskara kentzeko agindua xedatu zuen Benito Valencia gobernadore zibilak, hainbat tokitan jada egiten ari zenaren aurka, eta ber urtekoak dira, Bilboko lore jokoetan, Unamunok esandako mamukeriak. Gutxiz gehien euskararen aurkakoa zen giro honetan, eta euskararen alde zeuden Campión eta abarren aparteko ghettoan sartzeke, bada, atera zuen Huizik bere gramatika.

Iruñeko gotzaiak ez zukeen begi onez hartuko Huiziren ekintza. Bestela ere, ordurako nahikoa higatua zegokeen, eta handik gutxira, urtea amaitu aitzin,

(3) Eugenio ULAIAR: “Blas Alegria euskal idazlearen bizitza eta lanak”, *Euskera*, 1983, XXXVIII-2, 316-317 or.

dimisioa aurkeztu zuen. Antonio Ruiz-Cabal Rodríguez (Cádizko Villamartín, 1835-Sevilla, 1908) 1886.ean iritsi zen Iruñera, eta hagitz langilea bazen ere, berekin zeraman eite harrosko eta mesfidatiak apezpikutegiko eliztar gehienen mesprezu hotza erakarri zion, eliz kargurik garrantzitsuenak kanpotarren eskutan utzi izanak ere emendatu zuen gauza. Diabetek jota zegoelako aitzakiaz alde egin zuen Iruñetik 1899.eko abenduan, ohiko adio ofizialik gabe, bere agintaldiaren porrotaren erakusgarri. Biktorianoren liburua, berriz, abuztuan atera zen karrikara, bere poltsikotik ordainduta, eta lehenbiziko orrialdeetako ohiko baimen eta zentsura eklesiastikoak bertan ezarri gabe. Liburuan ezarri sarreretan ere, nahiz esplizitoki gotzainaren jarrera ez aipatu, bai inplizitoki iger daitekeela gotzain andaluziarrari eginiko salaketa, nola euskarazko sarreran, nola erderazkoan:

“Geruagoko eunkadetan berriro indarra artu bearrian, artian izan zittuben kontrario denak baño aundiagokua sortu zitzaion erdera edo gaztela, eta onek beiti eta gaur geiago, bere desafio eta kastiguaki nei dau debekatu ez bakarrik erakuslekutan baita suondotan ere aztu daien guztias; ontarako erdaldun denak elkartzen dira eta gutxi billatuko dira oni ongi begiratzen diotenetatik, zeñi aundia ote da gaztelak euskerari dion gorrotua! Eztau adittu eta entzun nai bere buresua duela, nei lauke au ondatu lurretik. Gendu dizkigu gure ainziñako usuario, lege, eta bizi modu gastu gutxikuak: izkuntzau eziñ digu gendu oraindik bintzet gure erri batzuetan, au dau kontrario aundia, onek iraunten deben artian, guk euskaldunak ez gera fiatuko Gaztelareki eta bere agindu falsueki, onek iraunten deben bitartian Euskaldunak beti euskaldun: erak, gu ola ezaguturik, egiñen dittuzte alegiñak gentzera guri ere geren izate pare gabiau, gure biotz animetan dagon izkuntza eta bizi, zergatik ongi dakite gendurik erri bati bere asmo eta barrunbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, gentzen zaiola bere izatia bere bizitza: nei gaitu bereganatu ez gure onagatik baizik daukaguna kendu eta eztaukienaki berdintziagatik, goarturik ongi, gureki obeki biziko dala. ¡Ah aparte bagaunde zeñi ederki elkartuko gifiñake euskaldunok denok! (...)

(...) ¿Qué diré del baskuenz respecto al ministerio sacerdotal? En Nabarra hay muchos pueblos y mucha gente que no sabe más lengua que el baskuenz, por consiguiente, para esa, la explicación de la doctrina cristiana, del Santo Evangelio, corrección de los vicios y administración de los Santos Sacramentos, debe ser en baskuenz; y a nadie se le oculta que para esto es preciso saber leer, escribir, entender y hablar el baskuenz, sino queremos conocer, como hasta ahora, casos de ver a sacerdotes que, solos y sin saber palabra de él, han tenido que habérselas con feligresías en donde no había más que dos o tres empleados públicos que entendieran su castellano (y esto a sucedido con cabildantes míos), siendo consiguiente en las mismas la indiferencia religiosa. Y no basta que el sacerdote haya nacido de padres bascongados y en pueblo bascongado, pues muchos de estos no pueden cumplir, como se debe desear, con sus obligaciones, sin mas que esto.”

Apezpiku berria iritsi zenean, hau da, José López-Mendoza y García (Burgosko Frías, 1848-Iruñea, 1928) agustindarra, berriz, ez zen egoera ezertan ere

aldatu. Agintego hasieran bertan Lacorten *El Porvenir Navarro* astekaria debekatu zuela eta (4), bazirudien gotzain berriak herri nafar osoaren oniritzia jasoko zuela, 1900.eko urriaren 9an manifestaldi erraldoiak aditzera eman zue- nez, baina geroagoko hainbat gora-beherek aurreko egoera bera bersortu zuten. 1902.eko kalonje doktorala izateko oposaketetan Juan Gómez izenekoa gertatu zen irabazlea, ia segurutzat Hilario Ihaben apez nafarra gailenduko zela jotzen zenean; honetan gotzainaren esku-sartzea ikusi eta salatu zuten Legaz, Garnika, Irujo, Hernan eta Tirapu kalonjeek, baina nahi zutena lortu beharrean, gotzai- nak apaiz lizentziak kendu zizkien hauei, eta sorturiko iskanbila laxatzeko Za- ragozako gotzainak egin behar izan zuen bake egilearena. Handik gutxira, 1905.ean hain zuzen ere, Baztan eta Ilundain apaiz nafarrak Iruñean apezpiku sagaratu zituztenean, eliz ofizialaren ordezkariarik ez zen elizkizun horretara bertaratu, Nafarroako apezgoa bereziki sumindu zuena; ondoko egunetan esan- dakoagatik, apezgaitegiko zazpi irakasle kendu egin zituen bere kargutik apez- pikuak; aferak gori-gorian iraun zuen *Diario de Navarra* egunkariaren orrietatik bereziki, eta ez zen jabaldu apezpikuak Zapateria karrikakoa “rebelde a la autoridad y colocado en la pendiente del cisma” hitzekin mehatxatuz, Eus- takio Etxauri zuzendariak atzera egin zuen arte.

Burgostik etorritako agustindar honekin, bada, ez zitzaion Huiziri bere lana goxotu, ez eta aisatu ere, eta hasiera batean Etxarrin geratzeko emandako hi-

(4) Basilio Antonio Lacort Larralde (Bera, 1851-Iruñea, 1908) militarra eta kazetariak, Ruiz Zorrillak Madrilen sortu *El País* eguneroko errepublikazalean ekin zion idazteari estrainekoz, ho- rrezkero lagako ez zuen iharduera. 1898.eko maiatzean *El Porvenir Navarro* izeneko astekaria agertu zuen, bertan botatakoengatik Iruñeko gotzaiak kazetaren irakurtzea debekatu zuen hereti- koa, sorginkeriatik hurbil-hurbilekoa, eskandalagarria, erorbidea eta gaitz gutzien iturria bazelako. Arrazoiak arrazoi, esandako gutzien azpian, Eskolapioetan agituriko hainbat haragikeria lizun sa- latzea bide zegoen. Lacorten jarrera guztiz zorrotza izan zen beti, eta dotrina kontuetan ez sartu arren, apezgo nafarraren zurikeria petrala agerian uzten ahalegindu zen ahal guztietan. Erljio gizon eta emakumeen moral zikoitzak bortizki asaldatzen zuen Berakoa, batik bat joku berotik ateratako dirua aisaki onartzen zutelako. Kritikak aurtikitzerakoan ez zituen lazkaturen izenak berekiko gor- detzen, eta behin baino gehiagotan frai Arcangel Lizarrakoa buruñurduna edo frai Gilberto Blanco agustindarra izan zituen ikusmiran, hurrengo apezpikuaren gogaitasuna areago hantu zuena, bada, José López Mendoza-García gotzaia agustindarra ere bazelako. Azken honek aurrekoak xedatua orobat berrestez gainera Lacort *nominatim* eskomikatu zuen, baita astekaria sustatzen zuen oro, berdin kazetari, harpidedun, inprimatzaile, saltzaile, erosle, edota irakurlea zen. Bestaldetik Jenaro Pérez Moso gobernadore zibilak bere egin zuen elizaren epaia, eta astekaria galerazi zuen. Esan ere egin behar da aitzinetik Lacortek berak gobernadore ustelak Tafallan zuten isilpeko joku-etxea- rea agerian utzi zuela. Iruñeko agintariek, zibilek nahiz erlijiosiek, Lakorten paperak zukuruz- turik, manifestaldi erraldoia antolatu zuten 1900.eko abenduaren 9rako, liberalismoari aitziko ekin- tza garbia gertatu zena. Halaz guztiz Madrilgo biltzarretan, Senatu nahiz Gortecetan, *El Porvenir Navarro* astekariaren debekaldiak sortu iskanbila lakarrak Nafarroako gobernadore zibilarengandik Lacortek beste argitalpen bat kaleratzeko baimena lor zezala erraztu zuen, *La Nueva Navarra* dei- tuko zena hots. Alabaina, honakoak ere gotzaiaren erasoak jasan zuen, eta 1901.eko otsailaren 25eko dekretuaren bitartez eskomikua atezatu zuen, bigarren astekari honen irakurtzea heriozko pekatu zela ezin argiago utzirik, erresuma zaharreko eliza guztietan irakurtzeko zein atecetan jar- tzeke agindu zuela. Lacorten lanen irakurle fermua eta harpideduna Urdaingo idazkaria zen An- dres Agirre genuen, Biktorianok seguroenik ere ezagutuko zuena.

tzari men egin gabe, Altsasura igorri zuen apaiz-laguntzaile 1900.eko irailaren 27an, Carasatorrek eta jaso zigutenez:

“Obedeciendo a órdenes de mi superior jerárquico, me veo obligado a pasar a la parroquia de Alsasua en calidad de coadjutor y contra lo que me prometía...” (5).

Altsasutik Urdiainera aldatu zuten, eta azken honetan parroikiko ekonomilari zegoela, “Elizaguindeen zuzenguin kontuskua” izenburupekoa eman zuen argitara Iruñeko apezpikutegiaren aldizkaria. Honakoa Urdiango misioen erreseina dugu, laburra izanagatik ere, interesekoa dena, non bi orrialde eskasetan, 1903.eko bukaeraldean Orkin eta Erbiti aita erredentoristek Urdiainen eginiko misioaldien aipua ekarri baitzigun:

“Ama Birjiñ zortzes Garbiaren bederatzi-urtenian izan zan jentil erriontan (kupidegabiak izendatzen gaituztenes) Aita Erbiti ta Orkin erredentoristak euskeras eman ziguten bidalde edo misio santua, zeifñetan gure ongi etorriya zutenetik agertu ziguten lenbizi amorio aundiyareki eren biotza, urrena eza-guturik Jaungoikuaren gloriaganako aien deseiu ta gure salbaziuaganako zelua; danak zein lenago ta peleyan bezela juaten giñian Eleizara itzaldi santutara. Aspaldi nuan aditzera oso moduskuak zirala bidal premilieztarako, ala erakusi ere digute, zergati guretako bakarrik ongi eldu ziran ordutan, goizian eta arratsian irakatsi ta oroitu dizkigute amorios, baita ere diadarka San Pablock bezela, jainkuaren aginduak, gure animak ainbeste premia dituen birtudiak eta beraren salbaziuari dogozkion otoitzak. Aien itzaldiak izan dira umillak eta santuak, baya ain zorrotzak eta zeloskuak, bekatu, eriotz, juizio, infernu, euskaldunak erderas egiten duen bekatuaren gaiñian eta geñarako oituera geiztuen gaiñian, nun mugiarazi gaituzte (pozes negarra darigula) konfesatzera ta Jauna errebitzera gozaro kantatuas: atoz bekatariya, Jesus gure Jaun maite, bekatariok Ama, agur Maria, etc., beste batzueki. Misio urren egunian erregutu giñuen denok gure erri ta sukaldetatik beste mundura juan ziran anima geizto ta gure biotzeko aietas. Orain gaude bizirik dagonak ezagutu ez duen pozes beterik. Urdiango abadiak, abendubaren 10, 1903 urtian” (6).

Apezpikutegiko *Boletín Oficial Eclesiástico* aldizkaria Uriz Labairu gozaiaren agintegoan sortu zen 1862.eko maiatzaren 10ez geroz. Karrikan izan zen lehenbiziko 40 urteetan ez zen testurik euskaraz ageri, harik eta 1903.eko ekainaren 2an Arruitzen erretore zegoen Joxe Fermin Argiñarenak “Mayatecco illa Euskal-Errian” izenburuko laburra igorri zuen arte. Baraibartar harexek ireki ildotik, beraz, etorri zen Huiziren lana, tamalez, ezagutzen dugun azkena ere izan zena (7).

(5) Biktorianoren oharra Etxarriko udalari; CARASATORRE, ULAIAR, HERDOZIA: Op.cit., 106 or.

(6) “Elizaguindeen zuzenguin kontuskua”, *Boletín Oficial Eclesiástico del Obispado de Pamplona*, 1904-I-2, 964. zbk., 12-13 or.

(7) José María SATRUSTEGI: “Miscelánea: El euskera en el B.O. Eclesiástico de Pamplona”, *Fontes Linguae Vasconum*, 70 zbk., 1995, 545-548 or.

Urdiaindik 1904.ean atera zen Iraizotzera erretore joateko, baina Ultzaman ere arras denbora laburra eman zuen (8), izan ere, Lesakara aldatu baitzuten apez-laguntzaile lanetan berriz ere aritzeko (9). Apezpikutegiko agintariekin, beraz, zituen arazoak zirela bide, hau da, bere Sakana maitetik urruntzea, bi apezpikuek euskararekiko erakutsitako jarrera, edota aipatu 1902. eta 1905.eko aferek etsirik, 1906.eko otsailaren 23an Josulagunen ordenean sartu zen josulagungai moduan Loiolako etxean, honekin bere bizitzaren lehenbiziko aroa itxiz.

Ia hogeit urte eman zituen Biktoriano Huizik Lagundian. Apaiza bazen ere, josulaguna izateko prestakuntza ikasketak burutu behar izan zituen; lehenbizi, eta lehenengo zinitzak egin aurretik, josulagungai bezalako hiru urte igaro zituen Loiolan; handik, Burgosko La Merced ikastetxera joan zitzaigun 1909.eko ikasturtean erretorika ikasle moduan; hurrengo bi ikasturteetan, berriz, teologia dogmatikoa eta morala ikasi behar izan zuen Oñako ikastetxean, eta azkenik, josulaguna izateko faltatzen zitzaion hirugarren probanda 1912.ean egin zuen Loiolan. Orduz geroz, apaiz lanetan ihardun zuen Lagundiaren zenbait etxetan: 1913.ean Loiolakoan, 1914.etik 1918.erako laurtekoan Bilbokoan, 1919.etik 1922.erako hirurtekoan berriz ere Loiolakoan, eta azkenik, 1923.etik 1924.era Durangokoan. 1925.erako jada ez da Biktorianoren izena Lagundiaren katalogoetan agertzen. Azken urte hauetan gerizpetu zuen ordena uzteko izan zitzakeen arrazoiak ez dira ezagunak, alabaina gauza jakina da etxarriarra ari zailekoa zela, koxkorreko pertsona, eta batekin eta besteekin muturka ibili izanaren ondorioa zatekeen. Edozein arrazoi delarik ere, Huizik Loiolako ordena largatu zuenean, urrutira jo zuen, ausaz ahantzbidea harturik, eta Kuba aldera joan zitzaigun berriz ere apez soil moduan. Karibeko uhartean, ordea, ez bide zuen denboraldi luzeegia eman, eta handik gutxira Etxarriara itzuli zen, non zendu arte sortetxean geratu zen.

Gure asmoetatik at geratzen da Huiziren liburuari buruzko iruzkin sakonik egitea, halaz guztiz, honen gaineko hitz bi esatea haizu bekit. Ezaguna zaigu jada, *Manual de gramática bascongada dedicado a la excelentísima Diputación de Navarra y al Seminario Conciliar de Pamplona* izenburukoa alegia, Nafarroako hiriburuko Estafeta karrikako 31. zenbakian zegoen Erizeren moliztegian 1899.ean atera zena, berauek bere poltsikotik ordaindua izan zena, esan bezala. Ez zen makala ere atera orduko garaiko prentsa idatzian jaso oniritzia; honela zioen, esaterako, *El Eco de Navarra* egunkariaren kazetariak:

“Podemos asegurar que es obra sumamente apreciable por su sencillez y claridad, con abundantes ejemplos en castellano y vascuence. Está la obra basada en el estudio de los ocho dialectos vascongados, la de los mejores vascófilos

(8) Ez dakigu, beraz, urte haietan Ultzamako apezzen artean zegoen mugimendu euskaltzalean zein neurritan hartu zuen parte gure Huizik —Justo Albisu, Serapio Navarro...—, nahiz tamalez, etxarriarraren ekarpena Ultzama aldean ezer gutxitan nabaritutako zela pentsatzeko arrazoiak ba-dauden.

(9) Bortziriko hiri honetan sei ziren erretoreari laguntzen zioten apez-laguntzaileak.

pero no es la de ninguno de ellos, viene a llenar un gran vacío pues se ocupa del dialecto navarro septentrional, por componer esta parte la mayoría de los vasco-navarros y no haberse escrito gramática paralela, y con el fin de que se tenga un guía seguro a quién seguir. Por todo lo cual recomendamos a todos los vascongados y a los que quieran aprender el vascuence tan útil libro” (10).

Alabaina, erraldoi bakan baten antzera, isolaturik, ohiartzun haundirik gabe igaro zitzaigun Huizirena. Ezaguna da *Euskara* aldizkariaren bitartez Bonaparte eta Campiónen arteko komunikazioa Nafarroako hainbat hizkeren inguruan, tartean Sakanakoak. Berri iturri ezin baliagarriagoa zukeen Campiónek Huiziren idazkia, ordea, ez zuen, dirudienez, behar bezala aprobetxatu, eta horren froga dugu iruñarrak 1908.ean argitara eman zuen gramatika txikia, bere aurreko lan potoloaren laburpena baizik ez dena, eta gipuzkeratik abiatuta gainera, Huizik bere gramatikan iparraldeko goi-nafarrera abiapuntu hartzeko gomendioari zaputuz eginez; ber urtean López-Mendizabalek atera zuen bere gaztelera-euskara hitz egiteko esku-liburua, Campiónen beraren sarrerarekin, non Huiziren lanaren aipamen mendrenik ere ez baitzen. Biktorianori ez zion laguntza haundiegirik ekarriko bere ideologiaren biluzte saioa, nonbait, edonon eta edonoren aurrean egiteko enbarazurik sortzen ez ziona. Karlista amorratua izanik, bere liburuaren sarreran liberalentzako hitz gogorrak izan zituen, gramatika den neurrian oso gauza aproposa ez datekeena:

“Erdaldunak ia denak baldin badiote euskeldunari gorrotua, aparteko modu batian gorrotatzen dau liberalak; liberalak eztau izan eta ez izan ere kontrario aundiagokorik: zergatik euskaldunak eztau Jaun bakar bat eta erreligio bakar bat besterik sinistatzen, eta nois nai utziko dau bizia oien alde, ez tittu ikusi nei oien edozin gauza pentsatzeko, eskribatzeko erakusteko eta estimatzeko libertade galgarri zorigeiztoko oiek, jakiñik oiek baño obeki egiasko Elizak erakusten deben dotriña, umill gordetzen dau bere bizi moduan. Nun izan da erreligio geiago? Nun projimo lagunari amorio geiago? Nun bake obia eta geiago euskaldunartian baño? ¡Nork pentsatu olako geiztankeririk! Libertadioki beraki anparaturik, nei dizkigute kendu, geren euskera, fueruak, edo geren serbizio andien saritzat dauzkagun legiak, nei dau guk ere ongi etorria eman dezagun, eta agur onareki bestiak bezela burua makurtu dezagun bizio guzien burasu eta gure Jaun Dibinoaren etsairik aundirenak asmatutako geizterako baimenoni.”

Idazki honen hezurdura zehaztearren, gaingiroki izanik ere, liburukiari goiburu emateko bi hizkuntzatan egin sarrera guritsua datorkigu, bata bestearen itzulpen zuzena naski ez dena, eta elkarri osagarri argi litezkeen arren, aski argi da Huizik bi irakurle mota zuela gogoan, alfabetaturik gabeko euskaldun hura eta euskaraz ezertxo ere ez zekien erdalduna alegia, eta norbederarengandik emaitza ezberdin erdiestea zukeen helburu etxarriarrak. Sarreraren ostean jarraian dakarren gramatika gaika banandurik dugu: alfabetoa, artikulook, izenak, dek-

(10) “Un libro útil”, *El Eco de Navarra*, 1899-VIII-13, 6760 zbk.; Blanca Urmeneta Purroyen liburutik harturiko aipua, op.cit., 256 or.

linabidea, izenordeak, izenondoak eta aditza. Ahitzeko, benetan interesgarriak diren Aranatz aldeko hiztegi laburra eta hainbat esaldi nahiz elkarriketa eskaini zizkigun, azken orrialdeetan agertzen diren dotrina kontuak, zenbait ipuin eta Aralarko San Migelen omenezko kantekin batera.

Ez dira asko Etxarrikoak ondu liburuaz arduratu eta kezkatu direnak, baina baten batek horren berri eman zuen:

“Oso gutxik ezagutzen dute gizon argi onen lana. Aita Villasantek ez du aipatzen, ezta ere Mitxelenak. Intxaurrendok berriz, Iruñako apaizgaitegian egindako itzaldi batean agertzen digu Bitoriano Huiziren lana.”

Latxagak esan bezala, Migel Intxaurrendok Arriaranek 1926.eko bere *La iglesia y el euskara* liburuan bazekarren honen aipamena. Ezin da ahantzi Arribeko apez honek Iruñeko apezgaitegian ihardun zuela euskara irakasle, eta Huizik, azken buruan, erakunde berberari eskeini ziola bere liburua, beraz ez da harritzekoa Araizkoak Sakanakoarena ezagutu izana. Areago, sakandarrak zein arazitarrak euskara zela eta kezka berberak zituztela ezin da ukatu. Ia 30 urte geroago, arrazoi berberak zeuden Intxaurrendok *La iglesia y el euskara* salaketa entseguia kexu argitara emateko; honek ere, Huizik bezala, ez zuen salaketa soil eta antzu eman nahi izan, eta 1928.ean euskara ikasteko gramatika ere ondu zigun. Bestalde ere, Huizik aurretik eginiko salaketari ez zion gramatikaren bitartez soilik aurre egin, eta euskaraz ere izkiriatu zuen Iruñeko apezpikutegiaren aldizkari ofizialean, ordurako, nahikoa gauza berritzailetzat jo dezakeguna; komunikazio bakarra izan zen aipatu argitarapenean atera zuena, baina gehiago ateratzeko zailtasunak arnasten zen orduko giroan zeuden, ez ordea Huiziren eskuetan, hori gauza segurua da.

Huiziren ostean Intxaurrendok eginiko salaketak ezer gutxirako balio izan zuen; tartean gerratea iritsirik, gauza jakina da zein neurritan kaltegarri agitu ziren gudaldia zein ondoko urteak; Santiago Ezkerra Beltzak, Etxarri-Aranazko Aurelio kaputxinoa zenak alegia, bere 1958.eko *Bederatzi-urren bearrezkoenak eta eliz otoitz batzuk* eliz lanaren sarreran honela mintzo zitzaigun:

“Liburu onen zegatia?: Askotan entzun oi diet errietan apaizei: ez degu ifñun euskerazko bederatzi urrenak dakarzkien liburu bat ere arkitzen. Eta bateonbat sakabanaturik arkitzen bada, euskera itsusian egiña dago. Ainbeste aldiz entzun ditut itz auek, alako egun batean lanari lotu nintzala. Negargarria da, alegia, Euskalerriko elizetan euskerazko bederatzi urrenik ez dalakoz erderaz egitera bearturik egotea. Jaungoikoaren naia da bakoitzari bere izkeran itz egi-tea. Eta gañera elisetan euzkeraz itz egiten ezpada, eta euskeraz otoitz egin, alperrik izango da gure izkuntza goxo ta garbia gordetzeko egingo dan alegiña” (11),

(11) Santiago Ezkerra Beltza euskal idazlea ere badugu. Etxarri-Aranatzen 1925.eko maiatzaren 6an sorturik, kaputxinoen gerizpean ondu zuen bere idazlan ia guztiak Aureli Etxarri-Aranazkoa erlijioso izenpean edota *Lizarrusti* ezizen literarioarekin. Hiru izan ziren agertu zituen liburu txikiak: *Migel goiaingeruari bedratzi-urrena*, Iruñea, 1956; *Bederatzi-urren bearrezkoenak*

eta askozaz froga garbiago bezain hurbilekoa dukegu *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian 1971.eko maiatzean Anko Sendoa ezizenaren azpian bere grazia izkutatzen zuen Jose Angel Irigaraik argitara eman zuen “Eliza eta euskara” artikulua. Hartan nafar elizak euskararekiko zuen jarrera saminki deitoratzen zuen, eta adibideen artean Dorraoko kasua ekarri zigun:

“Ergoieneko Dorraun, denek euskaldun arrontak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz, jendea erdaldunduaz, eta erotuaz, obe-ki kristau dadin, nonbait.”

Dorrauko apeza ez zen ixilik geratu, eta urte bereko azaroan igorri zuen bere erantzuna, “Anko-sendoari erantzun idekia Beriain petik” izenburupean, baina Irigarai ez zen ezta erantzuten kezkatu ere egin, eta Dorrauko erretoreak igorritako testuari ohar laburra erantsiz, egoeraren etsigarria azalean utzi zigun:

“Berant bada berant, erantzun hau agertzen da. Nere iduriko, auzia nahiko garbia gelditzen da, eta ez du merezi gehiegi luzatzea.”

eta eliz otoiitz batzuk, Zarautz, 1958; eta *Meza saildua*, Iruñea, 1958. Denbora laburrez ere *Zeruko argia*-ko zuzendari lanetan aritu zen, eta ugariak dira *Goiz Argi* aldizkarian zein *Principe de Viana* euskarazko gehigarrian atera zituen kolaborazioak. 1961.ean ordena utzi zuenetik, Madrilén bizi da.

AINGERU IRIGARAY, GIZARTE ZIBILEAN BARNA

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

Jose Angel Irigaray

Gizartearen zinezko bizigarritasuna eta kultura sormena askatasunean loratzen dira; bertan, botere zibila eta militar edota erlisionezkoa bereizirik izateaz gain, alderdi politiko eta suerte guztiko erakundeen dogmapean artalde gisa ez diharduen gizartegintza baitezpadakoa da.

Gizarte zibil eta askaturako gizartegintzan barna bizi eta ibili direnetarikoak genuen Aingeru Irigaray; eta bidaide izanikako anitz ere gogaide ziren.

Berezkoa zatekeen jite hori garatzen eta mamitzen zoakiokkeen medikuntza ikasketak egiten hasi zenean; bereziki Bartzelonan eman zituen urteetan (1917-21). Catalunyako hiriburuko giro aitzinatu eta liberalak, sustraitua bezenbat zabalara, zirrara berezia zion eragin, baita beti iraunen zion hatz sakona utzi ere. Arras laketu zen han, eta oso maite zuen katalandarren hiritar giroa. Bertan, aipagarri eta esanguratsua da, gizartearekiko jarrera hori txertatzen bide zitzaien denbora berean, errotik eman zen cuskal literatura ezagutzerat, lapurtar klasikoarenganako atxekimendua hastapenetik loratu eta sendotzen zitzaiolarik. Haren gizarte jarrerarekin batera, beraz, literatur isuri eta zaletasunak finkatzen joan ziren. Euskara ardatz zeukan abertzaletasun erroto eta zabalean, herrikoia bezenbat kultoan, ez zatekeen ttipia aitaren eragina (“... *nik ezin dut sinetsi; aberria maite eta euskaraz egin ahalak egiten ez tuena*”, edota “*euskaldun jakintsun eta letradunek euskaraz behar dute...*”, Larrekoren funtsezko zutabeak baitziren). Barcelonan bilduriko lagunaren artean ere jarrera eta literatur zaletasun horiek ereiten joan zen. Justo Garatek berak behin baino gehiagotan aitortzen duen bezala (“...*enaiz aspertzen erraiten zenbat zor dizudan Eusko Jakintzari buruz.*” dio 1920ko hamarkadako gutun batean).

Giro eta jarrera hori sendotzen joanen zaio, bizitza pertsonalean barna bezenbat euskalgintzari zetxekion jardueran. Bizitza pertsonalaz denaz bezenbatean, Bilboko egonaldia aipatu beharra dago. Bartzelonako zenbait lagunaz gain, Viar, Atutxa eta Usandizaga sendakinak, Hernandorena, Belaustegigoitia, Mañeruko Lasterra arte kritikaria eta oraino beste batzuekiko laguntzan trabatzen joan zen. Diman ere denbora labur batez eman zuen osagile gisa. Arratiako ahozkotatasunaren aberastasuna (eta Bizkaikoa oro har) beti idurituko zaio bihotz altxagarria; Zuberokoarekin baterat, profanoa izateaz gain, bizi-gatz eta

piperra duena. Horren gatik, agian, beti ibili zen gisa horrelako testu eta lekukotasunen biltzen.

Parisen eta Freiburgen ere ibili zen espezialitate ikasketen egiten, eta han gizarte jarrera hori sendotu baizik ez bide zitzaion egin lehengo ildotik beretik: bertakoa bezenbat kosmopolita, kultur egarriz eta jakintza maila zabalez hornitua.

Hori dena Iruñean, eta oro har euskalgintzan, gauzatzea ez zen aisa. Indarrean zeuden jarduera eta moldeak makurragoak izan zitezkeen (1936. urteaz geroztikakoak, konparazione), baina ez ziren aipatu hiri eta herrialdetakoak bezalakoak. Hala ere, Iruñeko giroa, bereziki euskal kulturaren ingurukoa, ez zen usu uste ohi den bezain hertsia eta lanputsa; ez horixe. Gizarte zibilaren ildotik jende interesgarri asko zebilen eta ekimen frango garatu zen. A. Campion, Iturralde y Suit, H. Oloriz eta enparauen uzta ez zen nahi beste jori eta gauzatua, baina ez zen ttipia, ez murrizta. Haien Nafarroako "Asociación Euskara" elkartearen ondotik, XX. mendeko 2. eta 3. hamarkadetan "Euskeraren adiskideak" elkarteak jardun zuen Iruñean eta Nafarroa osoan. Bertan, apez euskalzale andanaz gain, artean B. Alegria, B. Fagoaga edota D. Intza, Iruñeko zibil jiteko jende baliosa (agian, zegoen baliosena) bildu eta ibili zen: J. Agerre (preziki, aurten 110 urte betetzen dira Iruñean sortu zela), E. Zubiri "Manezaundi", L. Olivier, P. Roch, M^a Paz Ziganda, J. Larretxe Iruñeko alkatea bera, B. Tirapu sendakina, I. Baleztena eta J. Irujo deputatuak, Aranzaditarrak... Iri-garaitar aita eta semea ere hor ibili ziren. Ez urruti Alexander Tapia-Perurena, irunseme olerkari fin eta isila. Aingeru eta Tapia-Perurena adiskideak ziren, bi zentzuetan: lagunak eta adin-kideak, urte berean sortuak (bidenabar, 1923. urtean Etxarri Aranatz huntan bertan Euskaltzaindiak antolaturiko Euskal Jaian Tapia-Perurenaren "Miren Josune" olerkia sariztatua izan zen. Sortu zeneko mendeurrenean izanki, beraz, bego haren aldeko gure gorazarrea).

Giro hori gerlak zuen erroitik zapuztu, Iruñeko eta Nafarroako euskalgintza sakonki kordokatu, gizartegintza osoa hertsiki lotuz eta okupatuz.

Lehendik ere Donostiara joan ohi bazen ere, Eusko Ikaskuntzako egin-beharrak zirela-ta (artean, J. Urquijo, A. Campión bera, Donostian eta Iruñean, Apraiztarrak, J. Elorza, J. Miguel Sansinenea, A. Labayen eta beste zenbaitekilako harremanetan tratatua baitzen), eta bestela (emazte izanen zena ere han ezagutu zuen), gerla ondoren, urte gutiren buruan bertara joan zen bizitzera, Bidasoako Hondarribian hiruzpalau urte eman ondoren. Han berriz hasiko zen harremanetan gelditzen zen euskaldungoarekin. Euskaltzaindian sartuagoa, J. Urquijorekin berarekin (H. Schuchardten "Primitiae Linguae Vasconum" lanaren espainierazko itzulpena egitera 1942. urteaz geroztik jada animatzen zuen), eta beste zenbait euskaltzain eta euskalarirekin. Diputazioko Artxiboko gunean eta Seminario Julio Urquijo delakoaren inguruan loratzen zoen giroa. "Egan" aldizkaria ere hortik sortu eta abiatu zen.

Nafarroari datxekionez, nahiz gerla aitzineko mailatik urrun egon, euskal kulturaren aldeko giro xumea loratzen hasi zen berriz. Tenore hartan baitezpadakoa zen ofizialdegiaren abegi gizartekoia M. J. Urmenetak eskaini zuen; gainerat, nahiz erakundearen babesean sortua izan, giroak laster bere zibil izari eta izaera propioa zuen hartu (ikastolen aldeko mugimendua, literaturaren bide berriak, kazetagitza, bertsolarigoa...). Gaur eguneko giroa, funtsean, haren kumea da. Nafarroako Artxiboko gunean ere, F. Idoate eta beste zenbaitekin maiz bildu ohi zen. Bidasoako Berara, bestalde, usu hurbiltzen zen, Barojatarak, Larunbe eta giroa zirela kausa. Orobat, ahal zuelarik, Lapurdira.

Nafarroan oroz gain kezka nagusia Euskararenganako jarrera duintzea eta ondoko gizarte jarduera gauzatzea zen. Erranikakoaz landarat, beste anitz ere antzeko ildotan barna zebiltzalarik, sobera ezagutzerat eman ez zen bidetik ibili zen 70ko hamarkadan J. Caro Baroja (babesa ematen baino ez bazen) eta J. M^a Sanchez Carriónekin baterat. Saioarean helburu orokorra, azken ahalegina bailitzen (eta zendu ziren bientzat hala izan zen), Euskararekiko jarrera ofiziala aldaraztea zen, baita etorkizunerako ildo zenbait finkatzea ere; ingurumen horretan, besteak beste, hezkuntzarako material berri bat apailatzen hastea. Hark egin zuen bere lana, J. M^a Sanchez Carriónek ere egintsurik zuen berea. Baina mediokritate eta sentiberatasunik ezaren isla zen Diputazioan ez zen deus ere erdietsi ahal izan. Gaur egun ere, pairatzen ari garenez, larri dugun auzia da.

Orobat dugu larri hastapenean aipatu gizarte zibilarena, iragan denborak eta burokrazia politikoaren alimaleko emendatzeak areagotu baizik egin ez dutena. Lehen aipatu lagun artean, 20 eta 30. hamarkadetan jada, horretan zeuden. K. Garmendia nafar adiskideak 1925eko gutun batean alderdikoei buruz erraten dionak laburbiltzen du haien sentimendua: *“Yakintza edo cultura sobera aundi eldu zaiote. Oyentzat politicak baizik ez du balio eta bertze gauza guziak astokeriak dira. Penagarria da holako jendea ikustea. Oyekin gure mintzaira eta gure jakintasuna zakurraren ipurdira guanen da”*.

Eta hori, funtsean, ez printzipio moral abstraktoen karietarat edota politika, orokorrean, arbuiatzen zutelakotz, indarrean zegoen abertzalegoaren kultur politika, eta politika kultura, gero eta gehiago eskas eta ikuspegi laburrekoa zitzaielakotz baizik; zenbaitetan, are jasangaitza. Gaur egun ere, mendearen hiru laurdenak iragan direlarik, areagotu den auzia dugu. Bego, beraz, guban, holako gizarte zibilean barna, eta alde, garaikide moldean bizitu ziren haien oroitza; orobat gure omena.

AINGERU IRIGARAY EUSKARAREN SUSTATZAILE

Etxarri Aranatz, 1999-VI-24

J.M. Satrustegi

Orain dela ehun urte etorri zen mundura Berako Altzate auzoan Aingeru Irigaray, sendagile, euskaltzain eta idazlea. Urte berekoa zen Iruñeko olerkari Alexander Tapia Perurena berreskuratu berria. Orduan idatzi zuen bere euskal gramatika Etxarri Aranazko Bitoriano Huizi apaizak, eta 1899 aipagarri hartan iritsi ziren Iruñera pertsonen garraiorako estatuan lehenak ziren “zaldi gabeko gurdiak”.

Gertakizun hauen guztien ehunurteurrena izateaz bestalde, mende biren arteko muga ere bazen, eta Nafarroako euskal kulturaren arloan belaunaldi berri baten txanda zekarren berekin. Hemeretzigarren mendearen azken laurdenean abiatu zen euskal pizkundea Iruñean. 1876an foruek nozitutako azken erasoarekin batera piztu zen euskararen aldeko mugimendua. Iturralde y Suit historialari handiaren etxean bildurik 1877ko udazkenean, hamahiru gizon ospetsuk sortu zuten *Asociación euskara* izeneko euskal elkargoa. Horrek esan nahi du, ordu arte baserriarren hizkuntza izandako euskara apala, hiritartua izan zela eta denbora berriei begira hiriburutik zetorkiokeela handik aurrera jende ikasien bultzada astingarria.

Gertakizunak badu XX. mendearen atari aurrean sortutako gizaldi harekin loturarik, alde batetik, euskaltzale haiek herri kultura eta hizkuntzaganako kontzientzia esnatzen lehen urratsak emanak baitzituzten ondokoei giroa prestatuz, eta bestetik, Aingeru Irigaray zenaren kasuan bere aita “Larreko” euskal idazlearen lekuko distiranta jaso baitzuen, bi zutabetan eraikitako gizarte giroz eta familiako loturaz zetorkiolarik euskararenganako atxikimendu fermua.

Ereintza gordina izan zen aurreko gizaldian egindako saioa; euskarari buruz ordu arte inoiz emandako urrats garrantzitsuena, baina ereintza. Negu iluneko lozorroa igaro behar zuen haziak lurpean *Euskara Elkargo* hura desagertu eta hurrengo loratzea ikusi orduko, eta horrela gertatu zen erromantiko ospetsu haiekin.

Orain gogoratzen dugun 1899ko belaunaldiari egokitu zitzaion euskararen Nafarroako udaberrian pizkundearen lorategia ureztatu eta zaintzea. Zorionez gidaritzaren eskualdatzean ez zen inolako etendurarik gertatu eta Aingeru Irigaray, Intza, Tapia Perurena, Agerre edo Tirapu bezalako izen berrien ondoan,

kementu jarraitu zuten itzal handiko Campion, Larreko eta Manezaundi bezalako idazle ezagunek gerra aurreko gazteekin elkar-lanean.

Lehenbiziko elkargo haren ia berrogeita hamargarren urtemugan, *Euskararen Adiskideak* izeneko elkarte berria sortu zen 1925ean helburu berdinekin. Ekintza erakargarriak antolatu zituzten euskararen estimua herriko jendeak berreskura zezan, eta hiritik at hasi ziren Euskal festa alai astingarriak egiten. Baziren bertsolariak, pilota, musika eta dantzak. Herriz herri euskara zekiten haurrei sariak banatu zitzaizkien, eta 1930ean Iruñeko haurrentzat lehen eskola euskalduna ireki zuten baimen guztiekin Eskolapioetan.

Aingeru Irigaray kanpotik zebilen une hartan, Zaragozan eta Barzelonan zehar medikuntza ikastaroak egiten. 1924an Paris eta Friburgon egonalditxo egin ondoren itzuli zen Euskal Herrira berehala euskaltzaleekin loturak eginez. 1924an bertan *Eusko Ikaskuntzako* bazkide egin zen, eta hurrengo urtean sortutako *Euskeraren Adiskideak* elkartean azaltzen da gero. Lehen izkribu ezaguna 1926ko bat izan daiteke. Baina bere lanbidean aurrera aterako bazen sendagile lanpostua lortu behar zuen eta ondorengo hamar urteak medikuntzako arduraz gehien bat markaturik egon arren, bere izena euskal mugimendu guztietan agertzen hasten da. Euskaltzaindiak 1929an urgazle izendatu zuen geroago hain eskuartze nabarmena izango zuen elkargoan lehen urratsa emanez. 1933an *Eusko Ikaskuntzako* batzar-iraunkorreko partaide zen eta hurrengo urtean elkarte horren idazkariorde bezala agertzen da.

Medikuntzak uzten zion neurrian zenbait euskal aldizkaritan nabarmentzen hasten da bere izena, hala nola *Gure Herria*, *Yakintza*, *RIEV* eta abar luze bategan. *Irular* ezizena zerabilen orduko idazlanetan.

Gerra aurreko urteak dira, noski, eta onerako ala txarrerako ezaguna zen agintarien aurrean bere euskaltzaletasuna ondore guztiekin. Garai hartan oinarritu zuen bere familia Maria Rosa Imaz donostiarrarekin ezkontzean 1924ko udazkenean. Hiru seme izan zituen eta laugarren alaba bat. Gertakizun traketzen aurretik familia eta euskara amodio biek bete zuten bere bizia laneko buruhauste eta zalantza askorekin lanpostu zehatza lortu zuen arte.

Latza izan zen gero hogeita hamaseiko eztanda beldurgarria euskal munduan murgildutako jendearentzat, eta Iruñeko lanpostua galduta Gipuzkoan aurkitu zuen ogibide berria Irigaray sendagile gazteak. Udaberriko jorra, nekazariaren eginkizun gogor eskergabea, ez da balio gutxieneko lana uzta oparoa lortu nahi duen nekazariaren helburuan. Gerra aurreko euskaltzaleen belaunaldiak nozitu zituen eraso, saiheste, gutxiespen eta edozein unetan bizia galtzeko arrisku babesgabe hura inaute mingarriaren ildotik, beren biziko aitortzen hobereana izan zen herriaren zapalkuntza beltzaren garaian. Noiznahi liburu politikak idatzi edo hitzaldi arrakastatsuak ematea baino txalagarriagoa. Esker onez bakarrik mintza gaitezke eten hartaz.

Gorrotoak erail ditzake harmekin gorputzak eta papera ofizialdu hutsalak nornahiri ken diezaioke bere ogibidea, baina ezin du hil konzientzian erroto-tako espiritua. Aingeru Irigarayk bere larruan nozitu bazuen ere gerraren ezten mingarria, ez zion inoiz uko egin odolez eta konbentzimentuz zetorkion arbasoenganako atxikimenduari.

Ekaitz guztien ondotik gerra osteko laino nabarrak igarota, uzta aroko oskarbia ikusi zuen, eta orduan hasten da "Apat-Etchebarne" adoretsua Nafarroan euskararen sustatzaile lan oparoa egiten. Bere igitaldi berezian 1941ean euskaltzain izendatua izan zenetik elkargo honen ordezkari eta akuilari aspergaitza bihurtu zen. Zuzendaritzako karguetan behin baino gehiagotan egonik ekimen baliotsuen aurkezle eta jarraile zen Alfabetatze taldearen arduradun izan zenean bezala. Eragozpen asko zela medio, kopuru gutxiko batzarreak egiten ziren une hartan, baina han zen beti zintzo euskaltzain nafarra. Euskal Akademiaren pizkunde lanbrotsuan zutabe sendoenetakoa izan zen bera.

Julio Urkixo Mintegiko bazkide 1954an izendatua izan ondoren *EGAN* literatura aldizkaria eta Euskalerriko Adiskideen Elkarteko *Boletina* bultzatu zituen zuzendaritza hirukoitzeko partaide baitzen Mitxelena eta Arrue jaunekin batera. Emankorra gertatzen da handik aurrera Apat-Etchebarne izengoitia euskal aldizkari eta egunkarien orrietan.

Nafarroari dagokionez, ezin bereziak dira elkarrengandik Aingeru Irigaray eta bere erro sakonen Erresuma zaharra. *Diario de Navarra* egunkariak atera zuen urte haietan hamabost egunetik *Nafar-Hizkuntzan orria* bera zelarik sortzaileetako bat, eta 1977tik aurrera zuzendari eta zutabe ia bakarra. Diputazioaren babesean ateratako *Principe de Viana* euskarazkoan ere ez zuten bere izkribuek inoiz hutsegini elkarrekin lanean aritu ginen denboran. Liburuetan jasorik daude, bestalde, hark erdaraz idatzitako hainbat lan.

Euskal kultura eta sentimentu guztien eragile zorrotz bezala ikusi nuen nik gehien bat gerra ondorengo egoera zailean. Herriz herri haur euskaldunei sariak emateko hamar urtez egin genituen ibilaldi amesgarri haietako irudi gardena dut nik Aingeruren oroitzapenik hoberena. Buru uzkur antzean, ele apal eta begiratze zorrotzarekin zihoan beti harira. Irribarrez euskaltzaleak agurtu, hitz samurrez epelak zirikatu eta kupida gabeko ausardiaz zabarkeriaren hutsak salatzea zen bere jarrera ohikoa.

Geroago *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariak sortu genituelarik 1969an hizkuntza eta historia gaiei buruzko aurkipenak eta iker saioak bidaltzen zituen. Horrela eman zuen ezagutzera bere izena lehen mailako hizkuntzalarien artean. Euskal testu zaharren lortzaile izkutu, aztertzaile sakon eta eztabaidatzaile zorrotz ere bazen, denbora berean eguneroko berri aipagarrienei euskararen zabalkundeko izkribuetan uko egin gabe. Hori guztia aski ez balitz, Nafarroan euskarak mendez mendez izandako atzerakada mugatuen mapa oso baliagarria argitaratu zuen gerra aurrean eta geroago berriro zehaztu.

Balegoke geure hartu-eman luze eta emankor haien garaiko pasarte jakin-garri asko aipatzerik, baina ez da hau une eta toki egokiena.

Hitzaldi laburra egiteko agindu didate enziklopedia baten moduko gai desberdinak landu zituen gizon erne eta langile porrokatuaren aipamena zuei eskaintzean. Motz gelditzeko arriskuarekin antolatzaileen esanera makurtuz, Aingeru Irigaray euskaltzale sutsu eta adiskide onaren goratarrea hitz gutxitan egin behar banu, hau esan nezake:

Lehia guztietako zaldun adoretsua izan zen euskararen aldeko borroka latzean. Itaurreko eta akuilari golde aurrean, atzean edo behar zen edozein tokitan, denetara iristen baitzen. Langile aspergaitza eta eginarazle setatsua. Alfer egoterik ez zegoen bere ondoan.